

euskararen berripapera



191

Gizarte elebiduna lortzeko egiten dugu lan

Berriki, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak mezu hori luze-zabal darabilen publizitate-kanpaina berezi bati ekin dio. Kanpaina horren bidez euskara zein gaztelania erabiltzeko aukera ematen duen benetako berdintasuna aldarrikatu nahi da.



Publizitate-kanpainaren irudia.

Kanpainaren xedea

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak abian jarritako publizitate-kanpainak xede jakina du: euskara zein gaztelania erabiltzeko aukera ematen duen benetako berdintasuna aldarrikatu eta azpimarratzea. Hori lortze aldera hainbat iragarki jarri dira egunkari, aldizkari eta irratietan. Iragarkiok euskaraz zein gaztelaniaz zabaldu dira.

Eskubideak hizkuntza-politikaren baitan

Jakinekora denez, euskal administrazioen hizkuntza-politikak, hizkuntza-eskubideei dagokienean, oinarri jakinak ditu: norbanakoen eskubideei zor zaien begirunea, administrazioarekiko harremanetan norbanakoei hizkuntza aukeratzeko aitortzen zaien eskubidea eta eskubide horiek bermatze aldera herri-aginteei dituzten betebeharrak.

Berdintasun sozial eraginkorra

Aipaturiko kanpaina, euskal herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako apustuarekin guztiz bat dator. Ekinza isolatua izan beharrean, HPSren baitan kokatutako

Elebide zerbitzu publikoaren erakusleho da eta, aldi berean, hizkuntzei dagokienez lortu nahi den berdintasun sozial eraginkorraren erakusgarri.

Elebide zer den

Elebide euskal herritarren hizkuntza-eskubideen bermea sustatzeko eginkizunarekin eratutako zerbitzu publikoa da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2007an abian jarritakoa hain zuzen ere.

Hiru dira *Elebideren* berezko eginkizunak: hizkuntza-eskubideak sustatu eta bermatzea, berme hori eraginkorra izan dadin prozedura bat ezartzea, eta hizkuntza-eskubideen urraketen konponbideak ezartzeko ardura duten administrazioekin eta erakundeekin lankidetzan jardutea.

Elebide: gizarte integrazioarako tresna

Elebideren azken xedea honako hau da: salaketa sistematikotik konponbideak bilatzera eta ezartzera pasatzea. Helburua ez da jazarzea, baizik eta hizkuntza-eskubideak betetzea eta betearaztea, eta tartean dauden eragile orori xede hori erdiesteko beharrezko lankidetzak eskaintzea.

«Zenbat eta handiagoa izan hizkuntzen aukera-berdintasuna, orduan eta sendoagoa izango da bi hizkuntzen arteko bizikidetzak, eta orduan eta bikainagoa izango da gu guztion bizikidetzak».

Miren Azkarate, Kultura sailburua

2007ko jarduera-txostena

Elebideren ibilbide oraindik laburreko lehenbiziko urteari dagokion jarduera-txostena aurkeztu eta zabaldu berri da. Txostena www.euskara.euskadi.net helbidean ikusgai dago. 2007an hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzuak 248 intzidentzia erregistratu zituen ●

Euskara-egiaztagiriak baliokidetu dira

Hainbat lanpostutan jarduteko behar dira euskara-egiaztagiriak. Milaka herritar dira halako edo bestelako euskara-maila egiaztatze aldera azterketak egin dituztenak edo egiteko prestatzen ari direnak.



Europako Erreferentzia Markoa hartu dute oinarritzat egiaztagiriak baliokidetzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak onartutako Dekretua apirilaren 16an sartu da indarrean, alegia, hainbat euskara-egiaztagiri konbalidatu edo baliokidetu dituen Dekretua, beti ere Europako Erreferentzia Markoak ezarritako ikasmailak ardatz hartuta.

Orain arte ez zegoen halakorik. Agiri batzuen artean bakarrik zeuden baliokidetzak aitortuta; beraz, kasu gehienetan, egiaztagiri bakoitza lortzeko berariaz prestatutako azterketak egin behar ziren. 2006an hasitako prozesuaren fase nagusia bukatu da ordea, eta egiaztagiri gehienak, Europako Erreferentzia Markoari segituz, baliokidetu dituzte. Honako hau da, Europako ikasmailak ardatz hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan dauden euskara-egiaztagiriaren baliokidetzeta-taula:

Europako Erreferentzia Markoa	HAEE- IVAP	HABE	OSAKIDETZA	ERTZAINZA	HEZKUNTZA
B1	1. HE	1. Maila	1. HE		
B2	2. HE	2. Maila	2. HE	1. HE	
C1	3. HE	3. Maila	3. HE	2. HE	EGA
C2	4. HE	4. Maila	4. HE		

Beraz, baliokidetzeta-sistemaren berri ematen duen taularen arabera Europako ikasmaila bakoitzaren parean dagoen edozein egiaztagiri izanez gero lerro bereko gainerakoak ere baditu. Hemendik aurrerako azterketetarako balioko du eta baita orain arte egiaztagiri horietakoren bat lortu duen edozeinentzat ere. Ondoko taulan ikus daiteke 1982 urteaz geroztik zenbat agiri banatu diren.

Orain arte banatu diren agiriak

AGIRIA	AGIRIDUNAK GUZTIRA	HASITAKO URTEA
EGA-Hezkuntza Saila	81.822	1982
HAEE-IVAP	40.585	1987
HABE	8.950	2004
Osakidetza	6.896	2004
Ertzaintza	2.195	1998
Guztira	140.448	

Nola egin dira baliokidetzeak

Prozesuaren giltza Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaketarako Europako Erreferentzia Markoa izan da. EAEko egiaztagiri horiek guztiak banaka-banaka Europako ikasmailekin alderatu dira eta konparaketa horien emaitzaren arabera kokatu dira lau mailatan (B1, B2, C1 eta C2). Zeregin horri berariaz antolatutako batzorde batek ekin dio: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, HAEE-IVAP, HABE eta Hezkuntza Saileko ordezkariak izan dira bertan. Proiektuaren gidaritzat teknikoak egiteko hiru pedagogia-doktorek osatutako taldea abiarazi zen: Neus Figueras, Iñaki Pikabea eta Jose Francisco Lukasek osatua. Hiru adituek 30 ebaluatzaileko taldearen laguntza izan dute.

Aurrera begira, inplikaturako sail guztien arteko Jarraipen Batzordea eratzea aurreikusi du Dekretuak. Horren helburua aurrerantzean ere egiaztapen-sistema guztiak Europako Erreferentzia Markora egokituta mantentzea izango da.

Dekretuak lehen taulako egiaztagiriak hartu ditu kontuan, eta sei hilabeteko epean bilduko dira konbalidazio-taula horretara honako egiaztagiri hauek: Irakasleen 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak, Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko tituluak ●



Meriadeg Vallerie


Ingurumenaren aldeko erronkaren eta hizkuntza-berreskuratzearen arteko ahaidetasuna: bretoieraren kasua

Egilearen ustez, bi kontu horien arteko antzekotasunen azterketak hizkuntza baten guztizko balioa ikusteko giltzarriak ematen ditu. Ikuspuntu ekonomikoaz gainera, kontuan izan behar ditugu hizkuntza-sistema koherente eta bideragarrien iraunkortasuna eta berreskurapena. Garapen iraunkorrari dagokionez, hizkuntzak iraunarazteko beharrezkoak dira, batetik, gizartea eta gizabanakoak erronkaz jabetzea, eta bestetik, borondate handiko hizkuntza-politika abian jartzea, tokiko agintariek ere parte har dezaten.

Meriadeg Valleriek idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikulua eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.



Argitalpenak



Cinco mil años de palabras
Carlos Prieto



Hizkuntzaren iraultza
David Crystal



Azterlana

Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina

Nekane Goikoetxea

Bidegileak bildumaren 2008ko eta 2009ko uzta

Bidegileak bildumak lan berriak lantzen dihardu. Urtea bukatu aurretik beste lau sorta kaleratuko dira. Horietatik lehena idazle klasikoekin (Sebastian Mendiburu, Pablo P. Astarloa, Joanes Leizarraga, Joakin Lizarraga) osatutakoa da; bigarrena, berriz, eragileekin (Fernando Muniozguren, Xabier Olaskoaga, Xabier Peña, Jesus Atxa); hurrengoa kargudunekin (Louis Dassance, Federiko Baraibar, Antero Apaolaza, Julene Urzelai); eta azkena bertsolariekin (M. Treku *Mattin*, Migel Arozamena, J. M. Iztueta *Lazkao Txiki*, Justina Aldalur).

Aurrerapen gisa, hona 2009ko sorta berrietan jorratuko diren biografiak: Jean Etcheverry-Ainchart, Josu Oregi, Adrian Celaya, Dominique Dufau, E. Urruzola *Uxola*, J. A. Arkotxa *Atxukale*, Jean Barbier, Maria Arizmendi, Juan Iturralde Suit, Fabian Loidi Peña, Isabel Lertxundi, Miren Terese Urrestarazu, Emile Larre, Nikodemus Iguain, Jose Zubimendi eta Karmele Errazti.

Bidegileak bildumako biografiak www.euskara.euskadi.net helbidean ikus daitezke ●



P.P. Astarloa
(F. de Vicente, 1998).

Bertsolaritzari buruzko lan monografikoa

Missouriko Unibertsitateko Center for Studies in Oral Tradition-ek argitaratzen duen aldizkariak bertsolaritzaren eta bat-batekotasunaren euskal arteari buruzko lan monografikoa kaleratu du, Bertsozale Elkartearen ekimenez. *Journal of Oral Tradition* aldizkariaren azken zenbakian, iazko urrian plazaratu zen 22. sortako bigarren alean, John Miles Foley unibertsitateko irakasleak 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiari buruz idatzitako artikulua eta hainbat euskal aditu eta bertsolarik egindako testuak irakur daitezke. Besteak beste, Alfredo Retortillok, Xabier Aierdik, Jon Sarasuak eta Joxerra Garziak parte hartu dute monografikoan. Aditu horien artikuluez gain, Joxe Agirre, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio bertsolariei egindako elkarrizketak bildu dira.



journal.oraltradition.org/issues/22ii web gunean irakur daiteke monografikoa ●



HABEren liburutegia EHUren lankide izango da



HABEren egoitzako errotulua.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak HABEren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen hizkuntzaritza aplikatuaren inguruko liburutegi zerbitzuak hobetzeko lankidetzarako hitzarmena baimendu du. Apirilaren 14an sinatu zen hitzarmenaren bitartez, bi erakundeek arteko lankidetzara arautuko da. Helburu nagusia hau da: HABEren liburutegiaren funts eta baliabideak EHUko ikasle, irakasle eta ikertzaileek erabil ditzaten sustatzea eta, halaber, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea azterlan eta ikerketa unibertsitarioen interesgune bihurtu dadin bultzatzea. Izan ere, liburutegiaren erabiltzaile unibertsitarioak ugartuz, unibertsitate-esparruan helduen euskalduntzea ikergai bihurtzea du helburu HABEek.

HABEren liburutegia (www.habe.org) hizkuntzan espezializatutako liburutegi publikoa da ●

Euskal Etxeetan euskara-ikastaroak emateko diru- laguntzak

2007ko urria eta 2008ko iraila bitartean euskara-ikastaroak emateagatik, Euskal Etxeei eta Federazioei esleitutako diru-laguntzen berri eman du Eusko Jaurlaritzak (EHAA, 2008ko martxoaren 27ko zenbakia). HABEek, guztira, 210.000 euro inguru banatuko ditu 75 Euskal Etxeren artean. Argentina, AEB eta Uruguairen kasuan, herrialde bakoitzeko Euskal Etxeen Federazioei emango zaie diru-laguntza. Laguntza horiek Euskal Etxeek euskara sustatzeko eta hedatzeko lanean jarraitzea eta auto-ikaskuntzako BOGA programa erabiltzea ahalbidetuko dute.

Bestalde, Argentinara ez ezik, Uruguai, Txile, Brasil, Peru eta Kolonbiara ere zabalduko da *Euskara Munduan* egitasmoa datozen lau urteetan. Eusko Jaurlaritzak, HABEren bidez eta Euskal Etxeekin lankidetzan, koordinatzen duen egitasmoaren helburu nagusia Euskal Etxeetarako euskara irakasleak trebatzea da. Hala, 2008-2011 aroan, aipatutako herrialdeetako 28 irakaslegai trebatuko dira ●

Hiru ale berri *Literatura Unibertsala* bilduman



Bizian argitaratuak eta *Don Ibaiko ipuinak*.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak EIZIErekin elkarlanean bideratzen duen *Literatura Unibertsala* bildumako beste hiru lan kaleratu berri dira: Charles de Coster belgikarrak idatzi eta Koldo Izagirrek euskarara itzulitako *Ulenspiegelen elezaharra* (135 zenb.), Olga Martinez de Marigorta eta Roberto Serranok euskaratutako Mikhail Sholokhov-en *Don ibaiko ipuinak* (133 zenb.) eta Franz Kafkak idatzi eta Naroa Zubillagak euskaratutako *Bizian argitaratuak* (134 zenb.). Hiru obrak Elkar eta Alberdania argitaldarek plazaratu dituzte.

Literatura Unibertsala munduko gainerako hizkuntzetan idatzitako literatur lanik onenetakoen euskarazko itzulpenen liburu-bilduma da. Itzulpenaz gain, idazlanari eta idazleari buruzko sarreratxo bat daukate liburuok ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Eusko Jaurlaritzak / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 • berripapera@ej-gv.es